



# Gabonetako kantak Olentzerori izango dira gaurko protagonistak

**BISITA ▶** Tolosaldeko eta Leitzaldeko herriak bisitatuko ditu menditik jaitsitako ikatzgileak; Gabon eskean ariko dira haur, gazte eta helduak

**DENETATIK ▶** Belauntzan opari banaketa, Tolosan abesbatzak eta banda, Iruran eta Villabonan jaiotza bizidunak, kalejirak, bazkariak... ▶ 2



## Xabi Fernandez aukeratu dute urteko kirolaririk onena

**TOLOSA ▶** Urtero bezala, Tolosako Udalak Tolosaldeko kirolari onenak saritu zituen atzo udaletxean, Kirola Astearen amaiera ekitaldi gisa. Xabi Fernandez bela txapeldun olimpikoa aukeratu zuten eskualdeko onena bezala elkarteek. Ibartarrak ezin izan zuten saria jaso, Donostian beste omenaldi bat zuelako eta Eneko anaiak jaso zuen Jokin Bildarratz alkatearen eskutik. Beste 34

kirolarik eta taldek diploma bana jaso zuten. Aurten erretiratu den Jose Mari Beldarrain wu-shulariari plaka eman zioten bere ibilbideagatik eta Lara Arruabarrena tenislaria, Itziar Oteiza igerilaria eta Javier Ayala judokari beste plaka bana etorkizun handiko kirolariak direla adierazteko. Argazkian, kirolari saritu guztiak bere diploma eta plakekin. LEIRE MONTES ▶ 4

### TOLOALDEA-LEITZALDEA ▶

## Presoen eskubideen aldeko ekimenak

Manifestazioak eta elkarretaratzeak izango dira gaur ▶ 2

### ARESO-LEITZA ▶

## Barriola eta Olazabal, etziko finalen zain

Lau t'erdiko txapela eta DV Torneoa dituzte jokoan ▶ 7

### VILLABONA ▶

## Etzi, 'Bi eta zazpi edo zazpi eta bi' antzezlanak ▶ 5

### BIHAR EZ DA HITZARIK IZANGO

Bihar, Gabon Egunean, ez da HITZARIK argitaratuko, egunkarietako langileek jai hartuko dutelako, ohi duten moduan. Etzi berriro zuekin izango gara. Gabon zoriontsuak opa dizkiegu guztiak.

## MOBILIZAZIOAK ▶

## Presoen eskubideen aldeko mobilizazioak

Euskal Herriratzearen aldeko manifestaldiak eta elkarretaratzeak egingo dira gaur

## O. ESKITXABEL

Olentzerori Euskal presoak Euskal Herrira ekartzeko laguntzeko eskaera egingo diote hainbat lekutan gaur. Horretarako manifestaldiak eta bilkurak antolatuta dituzte.

Tolosan eta Villabonan manifestaldiak egingo dituzte. Tolosan, Euskal presoak Euskal Herrira herri ekimenak deitutako manifestaldia 18:45ean abiatuko da Triangulotik. Ondoren, presoek aldeko topa egingo dute Intxurre tabernan. Villabonako Iru Aldeta taberna ondoan 19:00etan, jarri du hitzordua Villabona-Zizurkilgo Elxeratik. Manifestaldiaren leloa: *Ez gaude denok, amnistia orain*. Asteasun 19:00etan kalejira egingo du presoek aldeko Olentzerok tabernaz taberna. Lizartzan, Gaztetxeko kideek presoek eskubideen alde kalejira egingo dute antortzekin 19:30ean. Leitzan, presoek Euskal Herriratzea eskatzeko banderolekin joango dira Gazteluneko atarira Olentzerori ongietorria ematera. Eta, ikaztegiaren, presoek alde Gabon eskea egin ondoren, kontzentrazioa izango da udaltxe aurrean.

## ZUZENKETA ▶

Presoen eskubideen defentsan ibarran egingo den manifestazioa gaur izango zela esan zuen atzo HITZAK. Deialdi hori, abenduaren 31n izango da.

**ARAMBURU**  
Salgai (Tolosa). Pisua handia Gorosabel 40ean, Garajea aukeran.  
Salgai (Tolosa). Pisua altua igogailuarekin Nafarroa Etorbidean, 44.000.000 pta.  
Salgai (Tolosa). Pisua igogailuarekin Larramendi kalean, 30.000.000 pta.  
Salgai (Tolosa). Lokal komertziala San Frantzisko pasealekuan 85m<sup>2</sup>.  
Alokatzeko (Tolosa). Lokal komertziala Errementari kalean.  
Alokatzeko (Tolosa). Garajeak alokatzen dira Tolosako leku ezberdinetan.

943 65 17 13 / 677 46 09 16

## EGUBERRI BEZPERA ▶

## Gabonetako abestiek girotuko dute Olentzeroren etorrera

Ikatzgilea Tolosaldeko eta Leitzaldeko herriak bisitatuko ditu gaur

## OLAIA ESKITXABEL

Baserritarrez jantzita, makilak eskuan... Gabon kantak abesten aterako dira Tolosaldeko zein Leitzaldeko hainbat herri-tan.

Gabon eskean ibiliko dira txikiak, gazteak zein helduak; batzuk, goizez, besteak, arratsaldez eta, besteak, egun guztian zehar herriko kaleak eta base-rriak zeharkatuko dituzte.

Kantuak entzungo dira txoko

guztietan; horietako asko Olentzerori zuzendutakoak izango dira, gainera. Olentzero beraren presentzia ere izango dute hainbat herrietan; opariak eta goxokiak banatuko ditu herri batzuetan, kantari ariko da besteetan. Hori bai, pipa hortzean duela.

Abesteko aitzakiarekin herri-arrak asko bildu ohi da eta indarberritzeko musikaz lagun-duta bazkaltzeko hitzordua ere egingo dute askok.



Olentzero Samaniego ikastetxean izan zen atzo Olentzero. HITZA

## ESGITARAUAK ▶

## ABALTZISKETA

**09:00.** Eskolako irakasleak, ikasleak eta gurasoak herriko plazatik abiatuko dira.

## ADUNA

**08:00.** Plazatik abiatuko dira herritarrak.

## ALBITZUR

**09:00.** Haurrak eta gurasoak herrian zehar. Beranduago, gazteak baserriz-baserri.

## ALEGIA

**11:00.** Eskolako ikasleak eta irakasleak abesten irtengo dira.  
**17:30.** Txintxarri abesbatza Kurpil kafetegian bilduko da.

## ALTZO

**10:00.** Altzo-azpin bilduko dira Imaz Bertsolaria eskolako ikasleak eta irakasleak.

## AMASA

**13:00.** Uxo-Toki elkartearen bilduko dira, Agirre eta Iguaran bertsolariak lagun dituztela.

## ANOETA

**08:30.** Baserriz-baserri abesten irtengo dira herriko taldeek deituta.

**18:30.** Isastitik pilotalekura joango da Olentzero kalejiran.

## AMEZKETA

**09:30.** Ugartetik herrirako bidea egingo dute Zumadi eskolakoek.

**09:00.** Presoen alde dirua

biltzeko plazan bilduko dira. 16:00etan Ugartetik herrira bitarte abestuko dute.

## ARESO

**18:30.** Olentzero menditik plazaraino joango da kalejiran. Bertan, opariak banatuko ditu.

## ASTEASU

**12:00.** Olentzero pilotalekuan.

## BALIARRIAN

**14:30.** Plazatik abiatuko dira herritarrak Gabon eskean.

## BELAUNTZA

**17:00.** Olentzerok opariak eta goxokiak banatuko ditu Kultur Etxean. Gurasoentzako otorduxoa ere izango da.

## BEDAIO

**16:00.** Elkartetik abiatuko dira baserriz-baserri.

## BERASTEGI

**09:00.** Plazatik abiatuko dira herritarrak abesten. Urepelen bazkaldu eta 15:00etan berriro kantari irtengo dira plazatik.

## ELDUAIN

**15:00.** Haurrak Olentzerorekin abestuko dute plazatik abiatuta.

## GAZTELU

**09:00.** Gaztetxoak baserrietan abestuko dute. 14:00etan Kontzejuan bazkaria.

**17:00.** Plazan bilduko dira

herritarrak abesten hasteko. 18:30ean, Olentzero Larte menditik jaitsiko da.

## IBARRA

**18:30.** Izaskundik herrira jaitsiko da Olentzero.  
**19:30.** Plazan goxokiak banatuko ditu Olentzerok.

## IKAZTEGIETA

**09:00.** Presoen alde abesten aterako dira udaltxe aurretik.  
**09:15.** Eskolakoek abesten emango dute goiz osoa.

## IRURA

**11:30.** Haur abesbatzen hamaiketakoa.  
**14:30.** Gazteen bazkaria.  
**19:00.** Jaiotza biziduna eta abesbatzen elkartzea plazan.

## TOLOSA

**10:00.** Sakramentinoetatik abiatuko dira Laskorainekoak.  
**10:30.** Hirukide eta Kirikiño aisialdi taldekoak Hirukide-Jesuitinetatik abiatuko dira.  
**11:00.** Samaniegokoak Sortzez Garbia plazan bilduko dira.  
**12:30.** Tolosako Musika Bandaren Gabonetako kontzertua Plaza Berrian.  
**17:30.** Olentzerori ongietorria San Joan kalean. Ondoren, Triangulotik Plaza Berrira eta Berdura plazara joango dira.  
**20:00.** Musika Banda Gorriti plazatik abiatu eta ondoren abesbatzekin Plaza Zaharrean.

## LARRAUL

**14:30.** Plazan bilduko dira haurrak eta gurasoak abesteko.

## LEABURU-TXARAMA

**10:30.** Gazteak abesten aterako dira.

## LEITZA

**12:00.** Eskolako haurrak abesten ariko dira kaleetan.  
**18:30.** Olentzero kalejiran herriko plazara abiatuko da. Bertan, Asketa abesbatza izango da.

## LIZARTZA

**09:00.** Katekesioak herriko plazatik irtengo dira abesten.  
**09:00.** Gaztetxeko kideak baserrietan ibiliko dira kantari.

## ORENDAIN

**09:00.** Herriko plazatik, Kultur Batzordeak eta Guraso Elkarteak deituta.

## OREXA

**16:30.** Herriko tabernan bilduko dira.

## VILLABONA

**09:45.** Eresargi abesbatza herrikoia Eliza ondoan.  
**17:30-20:00.** Jaiotza biziduna Zentroa eta eliza arteko plazan.  
**18:00.** Olentzero eta Mari Domingi kalejiran Otsabitik Errebote plazaraino.

## ZIZURKIL

**10:30.** Pedro Mari Otaño eta Jesusen Bihotza Ikastolakoak kalean zehar. 12:00etan, Urkamendi Elkartearen aurrean hamaiketakoa. Olentzero bertan izango da.

MUSIKA ▶

# Txinan dira Olano eta Letamendia EGOko musikari tolosarrak

Ekhiñe Olano Schnabel tronpajolea eta Iñaki Letamendia Arsuaga perkusiojolea Txinan izango dira Gabonetan



Iñaki Letamendia eta Ekhiñe Olano musikari gazteak Txinara abiatu aurretik. EDURNE AYUSO

## EDURNE AYUSO

Aurtengo Gabonak zeharo desberdinak izango dira, Ekhiñe Olano eta Iñaki Letamendia musikari tolosarrentzat. Euskadiko Gazte Orkestra edo EGOko kideak dira biak eta abenduaren 22az geroztik Txinan dira EGOko beste 78 lagunekin batera. Olanok eta Letamendiak Olentzero argazkitan ikusi beharko dute aurtun, urtarrilaren 9a bitartean Asian ibiliko baitira eszenatokiz eszenatoki. *Bene-benetako abentura* izango dute bidaia honetako leloa eta ziur hala izango dela, benetako abentura.

Ekhiñe Olano zein Iñaki Letamendia musikariak dira oso txikitatik. Olano sei urterekin hasi zen Musika Eskolan. Tolosako Musika Eskolara bisita egin eta gustatu egin omen zitzaion. Gaur egun, 20 urterekin tronpajole gurtziz abila da. Donostiako Goi Mailako Kontsektorioan ikasten ari da eta bere ametsa, «orkestra handi

batean tronpajole izatea» omen da.

Iñaki Letamendiari etxetik datorriko musikarako zaletasuna. Aitak atabala eta txistua jotzen ditu eta semeak ikusitako ikasi du nonbait. Letamendia bost urterekin hasi zen perkusioa ikasten eta egun, hogeita bi urterekin, Zaragozan Goi Mailako Ikasketak burutzen ari da. Letamendiak HITZARI azaldu dionez, Zaragozara joateko erabakia ez zitzaion batera gogorra egin. Gainera, joan aurretik, Donostian eta Iruñean ere frogak egin zituen. Donostian ez zituen frogak gaitzitu eta Iruñekoak ongi egin zituen arren, nahiago izan zuen Zaragozara joan, «bertan, oso irakasle onak baitaude». Aurtengoa gaztearen lehen ikasturtea da eta «oso gustura ikasten» ari omen da, «irakasleak oso gogorak, baina oso onak» omen dira eta.

Letamendia astebururo etortzen da Tolosara, Errenteriako txistulari taldean ari baita lane-

an. Igandero-igandero diana jotzen du eta «asko bizitzen» du lan hori, batez ere, etxetik jaso duen ohitura delako. Hala ere, etorkizunera begira, «orkestra profesional handi batean lan egitea» da perkusiojolearen ametsa. HITZARI adierazi dionez ordea, «hori oso zaila izango da. Oso postu gutxi sortzen dira eta musikari oso onak daude. Talde profesional batean lan egiteko aukerarik izango ez banu, irakasle gisa ere lan egingo nuke gustura. Eta bestela, noizean behin plaza-ren bat bete zergo, gustura izango naiz».

## Txinara bidean

Tolosar gazteak Txinan dira abenduaren 22az geroztik eta urtarrilaren 9an bueltatuko dira. Egun hauetan zehar, Euskadiko Gazte Orkestrako 80 lagunek 10 kontzertu eskainiko dituzte. EGO 120 gazte dauden arren, 80ek baino ez dute izan Txinara joateko aukera. Horregatik, bai Ekhiñe Olanok

eta baita Iñaki Letamendiak ere, proba batzuk egin behar izan zituzten. Olanoren hitzetan, «proba oso laburra izan zen, bost edo hamar minutukoa» eta ez omen zitzaion oso zaila iruditu. Hau ez da gainera, bi gazteek halako bat egin behar izan duten lehen aldia. Biek ala biek ere, Espainiako Gazte Orkestrako probak egin zituzten eta Ekhiñe Olano, azkeneko iritsi zen, nahiz eta azkenik ez zuen taldean sartzea lortu.

Bi gazteei «ilusio handia» egiten die bidaiatzek, hau da gainera, Espainiatik kanpora kontzertu bat eskaintzen duten lehen aldia. Iñaki Letamendiaren aitari inbidia ere ematen omen dio, «garai bateko txistulariek inguruko herrietara bidaiatuta» konformatzen zirelako eta gaur egun «nora, eta Txinara» joan behar dutelako.

Olanok eta Letamendiak egia esan, ez dute turismoa egiteko denbora libre askorik izango, agenda kontzertuz beterik dutelako. Txina Iparraldean eta Hegoaldean zehar hamar kontzertu inguru eskainiko dituzte. Ia egunero hiri batetik bestera bidaiatu beharko dute, baina honek ez die kezkarik eragiten, bertako kultura ezagutzeko desiratzen baitaude tolosarrak. Ekhiñe Olanoren aburuz, «han dena izango da oso desberdina eta hura ezagutzeko gogoia daukat». Letamendiak berriz, bertako musika tresna tradizionalak ezagutu nahi ditu batez ere, «han teoria eta teknika desberdinak daude eta aberasgarria izango da horiek ezagutea».

Txinara abiatu aurretik, bi gazteak Gazte Orkestrako gaitzertze kideekin batera, Eibarren elkarturik izan dira. Abenduaren 17a eta 22a bitartean egin dituzte azkeneko entseguak, Txinan lan ona egin nahi baitute.

Aurtengo Gabonak ia usaindu ere egingo ez dituzten arren, ez omen dute pena handirik. «Halako aukera bat bizitzan behin baino ez da izaten» eta ez diote ihes egiten utziko. Tristurarik handiena, «familia eta lagunengandik urrun egoteak» ematen omen die, halako egunetan ohikoa baitute familia eta lagun arteko ospakizunak egitea. Hala ere, lagun eta senideek ere Txinara joateko animatu egin omen dituzte.

Olentzero moduan, opariz beterik bueltatzeko asmoa omen dute bi gazteek. Ekhiñe Olanok maleta pisatu ere egin omen du «oparientzako zenbat leku» duen jakiteko. Olano eta Letamendia gazteek beraz, opariz eta esperientziakz beterik ekarriko dituzte Txinatik maletak eta bihotza.

GUTUN@K ▶



## Gabon agurra

Iritisi dira Gabonak eta Tolosa Bizirik herri ekimeneko hautetsiok ere, atsedenditxo bat hartuko dugu egun hauetan. Lan oparoa egin dugu azken hilabetetan hainbat tolosarren laguntzarekin. Haiei gure esker ona eta zorion nahia. Harro gaude elkarrekin egindako lanagatik, harro zuengandik jaso dugun babes eta maitasunagatik. Gora zuek! Ziur egon ez dugula etsiko, eta datorren urtean ere, zuen ezinbesteko laguntzarekin, tolosarron eta euskal herritarren hitza errespetatadain lanean jarraituko dugula.

Eta Udal agintariei zer? Zer esan urte osoan zehar 2.500 tolosar desagertutzat jo dituzten haietaz? Olentzerok datorren urterako dignitate apur bat ekar diezaien opa diegu haiei. Tamalez, dignitatea norberak aurkitu beharreko zerbaite da eta guk ezin diegu gurearen zati bat eman.

Baina egun berezi hauetan, gure besarkadarik goxoa Euskal Herriaren alde egiteagatik gure herritik urrun dauden guztientzat bihotzean gordeta daukagu. Gure maitasuna zuen senide eta lagun bitartez zuengana onik iristea nahi genduke, bidea etengabe luzatzen eta zailtzen duten bihotz gabeen gainetik. Ziur gaude aurki egun hauek elkarrekin ospatuko ditugula, bere buruaren jabe izango den Euskal Herri maittean.

Horixe da gure herriari opa dioguna eta egun hauetan desio hori modurik aproposenean adierazi nahi genizueke:

Orain Herria! Orain Bakea!  
ANTTON IZAGIRRE, BEGOÑA  
ALDALUR, HEKTOR ESPIN, IBAN  
ORTIZ ETA AITOR IZTUETA (TOLOSA  
BIZIRIK HERRI EKIMENeko  
HAUTETSIAKI) ▶ TOLOSA

## iragarki laburrak ▶

### SALGAI

**Soinu ekipoa.** Soinu ekipoa osoa salgai. Argibideetarako deitu: 943 67 48 06 / 943 11 77 38.  
**Etxea.** Alegiko Larraitz auzoan etxea salgai. 680 57 09 52.  
**Motorra.** Motorra Yamaha YZ 250 salgai. 2002koa, ondo zaindua eta extrekin (aukera). 4.200 euro. 600 90 36 28. (Joxe).

### LANA

**Sukaldaria.** Tabernarako sukaldaria behar da asteburuetan lan egiteko. 943 69 19 33.

## KIROL ASTEA ▶

# Kirolari onenei omen

Kirol Asteari amaiera emateko, Tolosaldeko urteko kirolari onenak omendu zituzten atzo; Xabi Fernandez bela txapeldun olinpikoak jaso zuen sari nagusia

## LEIRE MONTES

Kirol Astea amaitzeko, Tolosaldeko 2004ko kirolari onenak omendu zituzten atzo. Xabi Fernandez bela txapeldun olinpikoak jaso du sari nagusia. Taldeen botoekin egin da aukeraketa. Hauek dira omenduak:

**Tolosaldeko Kirolari Onena.** Xabi Fernandez bela txapeldun olinpikoa (Atenas 2004) —Eva Zulaika atleta, Alain Irazu eskiatzailea, Joseba Agirrezabala txirrindularia eta Edurne Pasaban mendizalea sailkatu dira ondoren—.

**Diploma kirolari zein talde onenei.** Eva Zulaika, Justina Aguerre, Amaia Jauregi eta Jon Ormazabal atletak, Edurne Pasaban mendizalea, Alonzo futbolaria, Gorka Molina hegats igerilaria, Maria Ongay judoka, Kepa Caballero patina-



2004ko Tolosaldeko kirolari onenak, oroigarriak eskutan, atzo, ekitaldia amaitzean. LEIRE MONTES

tzailea, Carlos Peña, Eneka Muñagorri eta Jokin Otaegi igerilariak, Alvaro Felipe, Edurne Martinez de Trebiño eta Raul Rebollo whu-shulariak, Maria Longarte igerilaria, Alain Irazu, Joseba Rojo, Joseba Ormazabal eta Erlantz Gonzalez eskiatzaileak, Joseba Agirrezabala, Jon

del Rio, Josu Agirre, Aitor Olano, Ainhoa Pagola eta Xabier Artola txirrindulariak, Iñaki Rezola zesta-puntista, Xabi Fernandez, Igarondo, Tolosa eta Igarondo Urpekoak igeriketa taldeak, Oriako txirrindulari eskola, Tolosa atletismoa eta Tolosako futbol neskek.

**Kirol ibilbideari omenaldi-plaka.** Jose Mari Beldarrain (whu shu) —aurten erretiratu da kompetiziotik—.

**Etorkizuneko kirolariei omenaldi-plaka.** Lara Arruabarrena (tenisa), Itziar Oteiza (igeriketa) eta Javier Ayala (judo).

## ARETO FUTBOLA ▶

## Atzo ekin zioten, Berazubin, XXIII. Eguberrietako Shanti Txapelketari

53 taldek eman dute izena; hilaren 31n amaituko da sailkapen fasea

## L. MONTES

Eguberrietako XXIII. Shanti Txapelketa martxan da. Atzo jokatu zituzten lehen partidak, Berazubi kiroldegian. Asteburuko atsendenaren ondoren, astelehenean ekingo diote berriro torneoari. Hilaren 31n, ostirala, amaituko da lehen fasea; finala, berriaz, Errege egunean, urtarrilaren 6an, jokatu da.

53 taldek eman dute izena aurten, horietako 15 neskenak. Adinaren arabera, hiru mailatan banatu dituzte antolatzaileek: A maila 1991. eta 1992. urteetan jaiotako neska-mutilek osatzen dute, B maila 1993an eta 1994an jaiotakoek, eta C maila 1995an eta 1996an jaiotakoek. Maila bakoitzan, gainera, multzoka daude banaturik, sailkapen fasea errazteko.

Antolatzaileen esanetan, «urtetik urtera gero eta nesken talde gehiagok ematen du izena txapelketan. Hori oso garrantzitsua iruditzen zaigu, eta kirol honetan berdintasunez aritu daitezkeela uzten du argi».

Errege egunera bitarte, beraz, kirola aitzaki, festa eta giro aparta izango da egunero Berazubin.



## ERLIJIOA ▶

## Gabonetako meza nagusia Santa Marian

Gabonetako meza nagusia izango da, bihar, Santa Marian, 11:00etan. Parrokiako musika kaperak —orkestra, korua eta organoa— Eguberri kantak eskainiko ditu.

## GIZARTEA ▶

## Laskoraingo Merkatu Txikia, etzitik zabalik

Etzi zabalduko ditu atekak, Kultur Etxean, Laskorain Ikastolak antolatutako Merkatu Txikia. Urtarrilaren 6a arte, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara izango da zabalik. *Hemen euro bat, han miloi bat* lelopean, Saharararako eta Indiarako jasoko dute dirua.

## MUSIKA ▶

## Hodeiertz eta Hodeitruk kontzertuan, etzi

Hodeiertz eta Hodei Truk abesbatzek Eguberrietako kontzertua eskainiko dute etzi, 20:30ean, Santa Klaran. Enrique Azurzaren zuzendaritzapean ariko da Hodeiertz, eta Jon Etxabe izango da bakarlaria. David Azurzak zuzenduko du Hodeitruk, eta Ana Iparragirrek joko du pianoa. Alos Quartet soka laukotea izango dute bidelagun.

## KIROLA ▶

## Etzi, arraun erakustaldia Orian

Arrakasta handia izan zuten San Joan jaietan, eta etzi batelaren erakustaldiek Oria ibaia hartuko dute berriro. 12:00etan hasita, hamar tripulaziok eta eskualdeko 50 bat arraunlarik hartuko dute parte ikuskizunean.

## ANTZERKIA ▶

## 'Xomorroak' antzerki musikala Leidorren

Etzi, 16:30ean, haurrentzako ikuskizuna antolatu dute Leidorren: *Xomorroak* antzerki musikatu eskainiko dute.

## TALDEAK ▶

### A maila-neskak (1991-92).

▶ A: Samaniego, Txalupa, Anoeta.

▶ B: Zazpi-bi, Matxurrinak, Koskis.

### A maila-mutilak (1991-92).

▶ A: The Tigre, Uzturpe, Shanti, Rayos.

▶ B: Isastegi, Anoeta, Argysan, Tigre txikiak.

### B maila-neskak (1993-94).

▶ A: Uguro, Montxi, Azkar.

▶ B: Oiarzabal, Negritas al ataque, Zumadi.

▶ C: Tigre txikiak, Panterak, Climaxvic.

### B maila-mutilak (1993-94).

▶ A: Climaxvic A, Itxaso Honda, Kobrak.

▶ B: Climaxvic B, Sendi Ekintza, Itzuli.

▶ C: Hirukide, Pumak, Lurrikarak.

▶ D: Bihurriak, Zumadi, Anoeta B.

▶ E: Tigre txikiak, Laier, Olazabal.

▶ F: Uguro, Aker Urdin, Txinparta, Anoeta A.

### C maila-mutilak (1995-96).

▶ A: Marrazoak, Laskorain, Laier, Zuloaga Txiki.

▶ B: Tornados, Fleming, Los Tibus.

▶ C: Fronton kafetegia, Diablos, Lagun Artea, Uguro.

VILLABONA ▶ KULTURA

# Txotxongiloak eta antzerkia uztartzen dituen obra Gurean

Asvinenea antzerki tailerrak haurrei zuzendutako 'Bi eta zazpi edo zazpi eta bi' antzezlanaren taularatuko du igandean

IMANOL GARCIA

Haurrei zuzendutako egitarauaren baitan, Asvinenea antzerki tailerraren txotxongilo emaladia ikusteko aukera izango da Gurea aretoan. *Bi eta zazpi edo zazpi eta bi* igandean eskainiko dute, arratsaldeko 17:00etan hasita.

Emanaldian antzerkia eta txotxongiloak elkarrekin doaz. Bertan bi istorio tartekatzen dira. Alde batetik Arturo eta Klementina, bi dortoka gazte- en istorioa daukagu, eta bestetik, zazpi xagu itsuena. Bi aktore azaltzen dira ipuinak aurkeztera bata bestearekin konfliktuan, batek dortoken istorioa kontatu nahi duelako eta



Bi dortoka eta zazpi xagu itsuren istorioak kontaktzen dira obran. HITZA

besteak zazpi xaguena. Bien arteko hika-mika barregarri bat sortzen da eta ikuslegoaren inplikazioa lortzen da, ba-

taren edo bestearen alde jartzen baita.

Bi istorioak gizatasunez besteak daude eta biek mezu sa-

kon bat gordetzen dute. Arturo eta Klementinaren kasuan, bi dortoken kasuan alegia, giza eskubideak aipatzen dira, emakumearen eskubideak azaltzen zaizkigu dortoka eme gazte baten ahotan, eta bere berdintasun eskubideak zarpitzen dizkion Arturoren aurka borroka egingo du, askatasuna eta elkar ulertzea lortu arte.

Bigarren istorioa, zazpi xagu itsuena, tartekatu egiten zaio lehenengoari, eta zatika, beste formato batean eta argi ilunarekin, beste mezu bat azaltzen ahalegintzen da. Tibet aldeko istorio batean oinarritua dago, non begiak ongi zabalduak eduki behar direla esaten zailgun. Itsututako xaguek, oztipoa bat aurkitzen dutenean, beraien itsutasuna dela eta ez dute oztipoa zer den asmatzerik lortzen. Begiak ongi irekiz gero, bizitza bere osotasunean ikusten dela adierazten digu bigarren istorio honek.

*Bi eta zazpi...* ikuskizunean ipuinen mundua, musika, magia, antzerkia, kolore biziak eta mundu bitxiak egoera barregarriekin nahastuak agertzen dira. Publiko guztiarentzat sortua, baina bereziki txikien gozamenarako.

ALEGIA ▶

## Kirol eta Kultur Etxeari buruzko informazio bilera

Kirol eta Kultur Etxearen erabiltzaile, bazkide eta kirol taldeei bilera deialdia egiten zaie egoera aldatetaren berri emateko. Bilera hilaren 27an, astelehena, 19:30ean, batzar aretoan izango da.

AIZTONDO ▶

## Egun osorako Gabonetako irteerak

Egun osoko plana egiteko Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak bi irteera antolatu ditu Eguberrietako. Aduña, Alkiza eta Larraulgo lau eta hamabi urte bitarteko haurrei zuzenduta. Abenduaren 29an, asteazkena, Donostiako Belen erakusketara goizean eta Kutxaespazioara arratsaldean. Urtarrilaren 4an, goizean Aquariuma eta arratsaldean Txuri Urdinera. Izena emateko epea hilaren 27an ixten da.

IBARRA ▶

## Haur eta gaztetxoentzat ekitaldiak

Astelehenean, hilak 27, Elvi sabel-hiztunaren emanaldia, 11:00etan Kultur Etxean. Asteartean, hilak 28, *Ilargiaren sekretua* bideo-emanaldia, 11:00etan Kultur Etxean.

BERASTEGI ▶

## Gabonetako ludoteka zerbitzua

Hilaren 27tik urtarrilaren 5era arte ludoteka zerbitzua izango da, 15:30etik 17:30era.

VILLABONA-ZIZURKIL ▶ HEZKUNTZA

# Osalanek bultzatutako programan parte hartu dute Jesusen Bihotzakoeak

Laneko segurtasunaren inguruan jokoan aritu dira ikasleak ordenagailuz beteriko autobusean

I. GARCIA

Osalan, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak bultzatutako programa batean parte hartu dute Villabona eta Zizurkileko Jesusen Bihotzakoeak DBHko 4. mailako

ikasleek. Ordenagailuz hornituriko autobusa izan da ikastola aurrean eta bertan joku interaktibo baten bidez laneko arrisku egoerak detektatzen, segurtasun baliabideak eta tresneria ezagutzen, osasun eta higiene neurri egokiaz ja-



Ikasleak ordenagailuz beteriko autobusean barnean. HITZA

betzeko lanetan jardun dute. «Ikasleek interes handia jarri dute eta asko ikasi dute, aldi berean ondo pasaz. Oso egokia

izan da, adinera ongi egokitua zegoelako aipaturiko jokoak», iritzi diote ikastolako zuzendaritzatik.

**EGUBERRIETAN ALDE ZAHARREAN IRABAZTEN ATERAKO ZARA**

**3.000€**

**3.000€**

Zatoz kanpaina honetako dendetara eta 3.000 euroko erosketa-txeke baten zozketan parte hartzeko aukera izango duzu. Horretaz gain, deskontu-saritan beste 3.000 euro banatu behar ditugunez, 30 eurorainoko deskontua irabaz dezakezu.

**AZPEITIKO IV. SAN SILBESTREA**

**ESKOLARRAK:** 10:30ean  
**KADETE ETA JUBENILAK:** 12:00etan 4.150 metro izango dira.  
**BESTEAK:** 12:00etan 8.300 metro izango dira.  
\* AURRENEKOENTZAT DIRU SARIAK IZANGO DIRA.  
\* PARTAIDE GUZTIEN ARTEAN BIDAI TXARTELAK ZOZKATUKO DIRA.

**Izen-ematea, 3 euro:** Azkoitia, Azpeitia, Zestoa, Zumaita, Getaria, Zarautz, eta Orioko Kiroldegietan, **HITZA**ko bulegoetan edo internet bidez: [www.herrikrossa.com](http://www.herrikrossa.com) (antolatzaleek HITZAra bideratuko dute diru hori)

GUTUN@K ▶



▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

## Udal Gobernuko Ekipoari

Ez da (manipulatzen, gezurretan aritzen, kritikatzeko, salatzen...)

Lehenengoa: Fiskalizazioa: Urte askoan inongo interesik gabe, Ibarako herriaren garapen eta pertsonaliterako lanean ari garenontzat, ohiko kontua da diru laguntza publi-

koak jasotzea, eta ondorioz, Udalari aurkezten zaizkion fakturen bidez, laguntza hauek egiaztatzea.

Aldiz, Udal Gobernuak, konbenioak, estatutuak, aztertu eta egiaztatzeko aitzakiarekin, enpresa pribatu bat kontratatzea erabakitzen du. (Hauspoa, Alurr...).

Bigarrena: diru irabazi nahi edo eznahiarekin: Egindako ekintza bakarra (formetan du-

dagarria) : San Ignazio auzoko udaberriko jaiak, Chelo Romeok hartutako erabaki pertsonalez, Kultura Batzordetik pasa gabe, 3.000 euroko diru laguntza jaso zuten antolatzaileek. (Pentsatu nahi dugu gastuak justifikatuko zituztela, eta Gobernu Taldeak, beharrezko diren irizpideak aterako zituela festa *herrikoi* hauek).

Hirugarrena: Udal kargu edo karga: Chelo Romeo alkateak

esan duenez, 2004ko uztailan, Udal Korporazioak eta Festa Batzordeak egindako bilera-aren akta eta grabaziorik ez zaio eman talde honi, Udaleko idazkari den Jesus Olazabalen erabaki pertsonalagatik.

Alkateak hitzez-hitz esana: «Idazkariak esan dit, akta eta grabaketa transferiezinak direla».

Aurretik aipatutako bilera horren hasieran, akta eta gra-

baketaren kopia bat bi aldeei ematea erabaki zen.

FESTA BATZORDEA, HAUSPOA KULTUR ELKARTEA, ALURR DANTZA TALDEA, GAZTE ASANBLADA, TXOZNA BATZORDEA, TANBORRADA BATZORDEA, DENAK TABERNA ARETO FUTBOL TALDEA, GARAGARDO FESTAKO BATZORDEA, HAITZETAN RAJU, LANGOSTINO MOTO FESTA, ENEKO ARITZAREN LAGUNAK, SUBEGI ▶ IBARRA

IBARRA ▶ KIROLAK

# Espainiako dardo txapeldun berriak Karlartz garagardotegiko taldekoak

Bikoteka lehenengo postuan amaitu zuten eta laukotea txapeldunorde geratu da Gironan jokaturako txapelketan



Espainiako Txapeldun eta Txapeldunordeak dardo partida batean. I. TERRADILLOS

IÑIGO TERRADILLOS

Gipuzkoako Dardo Txapelketa irabazi ondoren Espainiko Txapelketan jokatu ahal izateko txartela eskuratu zuen Ibarako Karlartz garagardotegiko taldeak.

Eta espero ez zutena gertatu da: Gironan jokatu berri da Espainiako Txapelketa eta bertatik bi kopa ekarri dituzte, txapeldunarena eta txapeldunordearena.

Izan ere, Jose Luis Rajado, Koldo Lorente, Luis Oruezabal, eta Txomin Apariciok osatzen duen taldeak txapeldunorde titulua ekarri du etxera. Bestalde, taldeak jokatzeaz gain, binaka jokatzeoko aukera izan zuten Llorentek eta Oruezabalek eta lehenengo postuan amaitu zuten. Hori dela eta datorren urteko Europako Txapelketan jokatzeoko txartela eskuratu dute biek. Eta taldeak ere oraindik izango du aukera, beti ere, otsailean hasiko den Gipuzkoako ligan emaitza onak lortzen baditu.

Alpatzekoa da baita ere, Gironan jokatu den txapelketan bigarren mailan lehiatu direla eta ibartarren batz bestekoek gora egin dutenez aurrerantze-

an lehenengoan egin ahalko dutela.

Irabaztea eta bigarren geratzea sorpresa handia izan zen dardo jokalarientzat eta ez zutela inola ere espero adierazi dute. Bertan hasi ziren ospakizunekin, «euskaldun giro polita baitzegoen eta guztiek zoriondu nahi izan gintuzten», baina benetako ospakizuna euren herrian zuten zain. Herriar ugari bildu ziren Karlartz garagardotegiaren kanpoaldean eta suzirik hartu zituzten irabazleak. Guztiek nahi izan zuten irabazleekin egon egindakoagatik zoriontzeko, baita alkateak ere. Afarian bildu ziren lagun giroan eta gaua festa handi batean amaitu zen.

### Denbora gutxian goian

Orain urte eta erdi hasi ziren dardoetara jokatzen. Hasieran lagunarteko denborapasa ziruarena pixkanaka gaua serioago batean bihurtu da, segituan konpetizioan hasi baitira eta ez nolana gainera.

Txapeldun izateak eragina izan du beraiengan, izan ere, dardoetara jolastu ohi duten askok eskatzen dute orain irabazleekin lehiatzea.

hitza **txokoa** lagunena

HITZAren laguntzaile izan nahi baduzu, deitu

943 30 43 46  
(8:30 / 20:30)

## 'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

Astebukaera honetan **Leidorren** emango diren 'SUPERTRAMPS' (euskaraz) edo 'MELINDA Y MELINDA' filmerako 2 sarreraren irabazlea:

ALBARO ATORRASAGASTI HITZAren harpidedun laguntzaile tolosarra.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

KIROLA ▶

# Bi herri, bi pilotari, bi final: Barriola eta Olazabal jokoan

Igandean, batek lau t'erdiko azken partidua du eta bestek, DV torneokoa



Abel Barriolak leitzar gehieneko animoak hantxe izanen ditu. J. ASTIBIA



Mikel Olazabalek ere zaletu franko eramanen du berekin. J. ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Orentzero gaueko eta Egueri eguneko astelehena igarotzeko, hara zer igandea heldu den hurrengo hau: Leitza eta Aresoko bi pilotarik, final bana jokatu behar dute eta biek hala biek ere jarraitzaile asko eta asko dituztenez, egun horretan lasai antzean dagoena, ez da makala izanen.

Eta hara nola, biak ikusteko aukera ere izanen dute zale-tuek. Izan ere Mikel Olazabalek goizez du partidua, 11:00etan: Betelu lagun duela, aresoarra Zarautzen ari beharra da, Ur-daniz eta Diaz de Ultzurrunen aurka, Etorbizuneko mailako DV sariketako finalean. Abel Barriolak, berriz, lau t'erdiko finala du, Aimar Olaizolaren aurka, Gasteizko Ogeta pilotalekuan, 17:00etan hasiko den jai-ladian.

Bi herrietan berez ere zaletasun handia badago bereziki pilotarako, azken egunotan Olazabalen eta zer esanik ez, Barriolaren iguruan sortu den ikusmin, arreta, gogo, elkar-animatze eta beste, ikaragarria da. Igandean, gutxi asko, herri-tar guztiek ere, bertatik edo telebistaz, begiak erne eta kirio-ak pil-pil izanen dituzte.

LEITZA ▶ GIZARTEA

## Eguberrietan nagusi festa izanik ere, aldarrikepenek beren lekua dute

Euskal presoek aldeko hainbat ekimen daude deituta egun hauetan

J. ASTIBIA

Esaten da, Eguberri inguruko egun hauetan, sentimendurik sakon eta gizabidezkoenak bizten direla: adiskidetasuna, falta direnekiko oroitzapena, elkartasuna... Bada, bada, orain ez ezik, urte guztian ere motibo eta arrazoirik gauza horiek sentitu eta azaleratzeko Euskal Herrian.

Horrela, egun hauetan, Leitza ere euskal presoek aldeko hainbat ekimen burutuko dituzte eta herritar guzteei horietan parte hartzeko dei egin die-

te, «gehienok gero etxeetako beroan gauden bitartean, beste behin ere, euskal presoek senide eta lagunak, errepidera aterako dira, kilometroak eta kilometroak egitera, arrisku bizian, maite dutena 40 minutuz ikusteko», argudiatuz.

Batik bat, bai gaurko Orantzaroren ailaeran eta bai ilbeltzaren 5eko kabalgatuko garaian, *Euskal presoak etxerako* ikurrekin elkarretaratzeak egiten dira; eta Urte Zahar egunean, berriz, manifestazioak egiten dute *Amnistia. Askatasuna* leloa buru izanik. Urtero

### EGITARAUA ▶

**Abenduak 24.** 18:30ean, plazan.

**Abenduak 31.** 19:00etan, manifestazioa.

**Ilbeltzak 5.** 19:00etan, enkartelada, plazan. 21:30ean herri afaria.

bezala, aurten ere Errege bezperan berean, herri afaria egiten dutela ere eman dute jakitera, bertarako txartelak ohiko lekuetan salduko dituztelarik.

LEITZA ▶ KULTURA

## Pirritx eta Porrotxekin ilargira sekretuaren bila

'Zinea euskaraz' emanaldia izanen da igandean 'Ilargiaren sekretua' filmearekin

J. ASTIBIA

Umeak ezin kexatuko dira, oporraldirako Denok Bat guraso elkarteak aukeratu dien filmearekin: Pirritx eta Porrotxekin *Ilargiaren sekretua* filmea proiektatuko baitute, Egueri bigarrenetan, hots hilak 26, igandean, 17:00etatik aurrera.

Filme hau aurreko hilean estreinatu berri-berria da eta bere egileak aski ezagunak dira. Beraz, lasai esan daiteke, primiziatxoa badela, eta auke-

ra honetaz baliatzea interesgarri bezain atsegina ere badela, 3 euroren truke.

Ordu eta laurden irauten duen istorio honek, basamortuan bizi den mutiko batek bere arreba sendatzeko beharrezko den lore misterioz baten bila egiten duen bidaia berezia, ahaleginak, gertakizunak, adiskidetasunak, aukariak... eta beste mila abenturen kontakizuna egiten du, Pirritx eta Porrotx pailazoez gain, beste aktore handi eta ttikien parte-hartzearekin.

### iragarki laburrak ▶

**Vital Kutxa.** 70 lanpostu libre. Sarrerak laster. Matrikulazio irekia. Informazioa doan. 943 65 01 93 telefonora deitu.  
**Haur Hezkuntza.** Plazak libreak

haurtzaindegi publikoetan, haur eskoletan. Informazioa doan. 943 65 01 93.  
**Gidariak.** Laster sarrerak udaletan eta Eusko Jaurlaritzan. Informazioa

doan. 943 65 01 93.  
**Sukaldari laguntzaileak.** Plazak libreak eskoletan, egoitzetan, Eusko Jaurlaritzan. 943 65 01 93 telefonora deitu.

**Administrazio laguntzaileak.** Laster sarrerak udaletxe hauetan: Hernani, Usurbil, Irun, Beasain, Altzo, Bergara, Zorrales, Mutriku, Zizurkil, Mendara, Anoeta.

Informazioa doan 943 65 01 93.  
**Peoiak.** Elektrikariak, iturginak, soldatzaileak, igeltsuak. Plazak libreak erakunde publikoetan. 943 65 01 93.

**Harpidedunei banatua ▶ 2004ko abenduaren 24a, ostirala ▶ II. urtea**

'HITZA' LAGUNTZEN  
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Aiztolesketa, Adura, Albitur, Alegia, Alkiza, Alzo, Amerleña, Ansoa, Balamán, Belantza, Berastegi, Edoñain, Hernialde, Ibarra, Iruña, Lantzi, Luchuri, Luartzi, Oñena, Oñena, Tolosa, Villabona, Zuzaldi

besteriak: Leizaldeko Euskara Batzordea

Gipuzkoako Foru Aldundia

Eusko Jauriaritza. Kultura Salla

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

12

hotzena

10

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA ARALARREN



Guardetxe: ez

Albi: ez

Pagomari: bai

Igaratza: bai

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (zalantzak, harpide egiteko...)

943

30 43 46

## AGENDA ▶

### DEIALDIAK

**Iruña.** Bihar 11:00etan, Eguberri eguneko meza nagusia San Miguel elizan.  
**Tolosa.** Gabonetako Haur Parkea izango da Beotibar pilotalekuan gaztelu puzgarriak, ludotea eta hainbat ekitaldirekin. Goizez eta arratsaldez.  
**Tolosa.** Mendiko federatu txartela egiteko Oargi mendi elkarte zabalik egongo da asteartean eta ostegunetan 19:30etik 21:00etara eta Alpino Uzturren astelehen eta asteazkenetan 19:30etik 21:00etara.  
**Tolosa.** Gabonetan Hirukide ikastetxeak ludoteka zerbitzua eskainiko du 3 eta 8 urte arteko haurrentzat Gainberrin, 09:00etatik 13:00etara izango da (barkariarekin 14:00etara). Informazioa 943 67 39 48.  
**Tolosa.** Eguberri meza berezia izango da Santa Maria parrokian bihar 11:00etan. Kaperak musikako abesbatza, orkestra eta organoarekin.

### ERAKUSKETAK

**Hernialde.** Luis Laskorain pintoreak bere koadroak jarri ditu ikusgai Ostatuan. Gai desberdinetako 18 lan dira.  
**Tolosa.** Alberto Letamendi margolariak bere koadroak jarri ditu Fronton kafetegian.  
**Tolosa.** *Sudurrak. Naturako usain gozoez* erakusketa dago Aranburu Jauregian urtarilaren

15a bitarte. Tolosako Udalak eta La Caixa Fundazioak antolatuta.  
**Tolosa.** Txixi Orbeozo tolosarrak bere margolanak ditu ikusgai Lanbroa tabernan. Koloretan eta zuri-beltzean egindako erretratoak dira.  
**Tolosa.** Rufino de Toro pintore billabonatarren koadroak ikus daitezke Sorron koadro dendan Olioak dira eta paisajeak.  
**Orexa.** *Izengabeak* izeneko pintura erakusketa izango da ikusgai abenduaren 17tik 24a bitarte Orexako tabernan.

### GUARDIAKO FARMAZIAK

**Leitza.** Plaza, M. Elbarren 36. 112. Bihar, berdina.  
**Tolosa.** Tolosa, M.I. Nagusia 7 943 (67 06 48). Bihar Azpiroz, M.L. Amaro 9 (943 67 51 18).

### IKASTAROKAK

**Tolosa.** Tolosaldeko Gurutze Gorria lehen laguntzen ikastaroa antolatu du urtarilaren 10etik 22ra. 30 ordu dira, astelehenetik ostiralera, 19:00etatik 21:00etara, eta larunbatetan 9:00etatik 14:00etara. Informazioa: 943 674888 eta 647 371529 telefonoetan.

### KIROLAK

#### GAUR

#### Futbola

▶ Tolosa-Real Union (Gorengo Maila. 16:30, Berazubi).

## HI, GAZTE! ▶



**Aldizkaria.** Hi, gazte!  
**Zenbakia.** 10.a.  
**Orrialdeak.** 16.  
**Tirada.** 2.500 ale.  
**Gaiak.** kontaktuak; kilimik; sexu atala; eskuz eginiko opariak; Eguberriak eta kontsumoa; disko/liburu/film kritikak...  
**Argitaratzailea.** Galtzaundi Euskara Taldea.  
▶ Nafarroa etorbidea 6 (Tolosa).  
▶ 943 65 50 04  
▶ higazte!@euskalerrria.org  
▶ Doako alea

## AIURRI ▶



**Aldizkaria.** Aiurri.  
**Zenbakia.** 225.a.  
**Orrialdeak.** 36.  
**Tirada.** 2.500 ale.  
**Gai nagusia.** Urte berriari begira.  
**Beste gaiak.** 2004ri errepasoa, presoen aldeko ekitaldiak, mendi astea...  
**Argitaratzailea.** Manuel Larramendi kultur bazkuna.  
▶ Kale Berria 47, 3. esk. 20150 Amasa-Villabona  
▶ 943 69 64 50  
▶ aiurri@topagunea.com  
▶ www.aiurri.com

## GALTAUNDI ▶



**Aldizkaria.** Galtzaundi.  
**Zenbakia.** 204.a.  
**Orrialdeak.** 36.  
**Tirada.** 5.000 ale.  
**Gai nagusia.** Eskerrak zuri aipamenak.  
**Beste gaiak.** Kirmen Uribe, urteari errepasoa, TEPE, kultur ekitaldiak, Larrañaga orkestra Austriar, Sabarri, Cuervo...  
**Argitaratzailea.** Galtzaundi Euskara Taldea.  
▶ Nafarroa 6 behea (Tolosa).  
▶ 943 65 50 06  
▶ galtzaundi@galtzaundi.com  
▶ www.galtzaundi.com

### MUSIKA

**Alegia.** Festa sorpresa egingo dute Gaztetxean, 17. urteurrena dela-eta. Gaur gaueko 01:00etatik aurrera.  
**Anoeta.** Herriko txistulari taldearen kalejira, bihar 12:00etan.  
**Tolosa.** Musika Bandak kalejira

egingo du Alde Zaharreko kaleetan, 20:00etan Gorriti plazatik abiatuta. Plaza Zaharrean abeslariarekin batera joko du eta plaza Berrian bukatuko du.  
**Tolosa.** Musika Bandak Gabonetako doinuak eskainiko ditu 12:30ean plaza Berrian.  
**Tolosa.** DJ Festa Elorri pub-

ean: DJ Anartz (Nomaklimato) eta DJ Juanxi (Nomaklimato).

### ZINEMA

**Tolosa.** Gaur ez dago zinemarik. Bihar 17:00etan *Supertramps* (euskaraz) haurrentzat eta 19:30ean eta 22:30ean *Melinda y Melinda*.

## ZORION AGURRAK ▶



### ZORIONAK

Laida eta Maddi. Muxu asko aitaboa eta amaxoren partetik.

# HITZA, zorion agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

**HITZAren egoitzara:**  
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA  
Udaletxeko bulegoa - LEITZA

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!**



**URTE ASKOAN**  
Mikel Ugartemendia (Albiztur). Gaur 28 urte. Etxeko partetik.



**URTE ASKOAN**  
M. Jesus Ibarria (Albiztur). Bihar 53 urte. Gure artean beste hainbeste betetzeko litazake gure ametsa. Etxekoak.



**URTE ASKOAN**  
Garazi Otamendi (Tolosa). Muxu bat etxekoan partetik zure laugarren urtebetetzean.



**URTE ASKOAN**  
Amaia Olariaga Lasa (Ibarra). Gaur 2 urte. Etxeko partetik.



**URTE ASKOAN**  
Beñat Zapirain (Ibarra). Gaur urtebete. Familiaren partetik, batez ere Erenitz.